

ZENBAT BURU  
Martin Dominguez

ERREPORTAJEA  
Makina  
Erremintaren  
21. Bienala

# BARREN

2006 markaren 17a  
VIII. urtea - 313. zkia

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A




GEHIGARRIA  
Zaharrak < Berri

KIROLA  
Ekaitz Isasi bigarren,  
Andorrako *Balientes*  
snow-board proban

Koldo Zuazo,  
IDeba ibarreko  
1. 'skeria' iiburuaren  
egilea



**Technifuelle**



**Law** BRONCES  
GARITANO, S.A.

# 21 BIEMH

## MAKINA ERREMINTA N ESKAPARATEA



**ometel**



**DANOBAT**  
MAQUINAS HERRAMIENTA



# Arantgarbi ESTETIKA

## ARRPEK TRATAMENDU BERRIAK

Grasaren eta aknearen kontrakoak

Azal lehorarentzako eta zimurrentzako

*Retinol* tratamendua



10 minutu

Depilazioa: hotza eta beroa

Aurpegi garbiketak


Masajeak

Manikura-pedikura

Makilajeak

Tintea eta permanentea betileetan

30 minutu



San Inazio, 4 Tel. 943 74 27 25

## Motorren erakusketa Guggenheim-en

2 ordu libre,  
Bilbon ibiltzeko

Butroe gaztelura irteera

Norentzat: DBH 1-2-3-4

Noiz: Martxoak 25, larunlae

Irteera: 10,00etan Plaza Handian.

Buelta: 19,00etan Plaza Hagkipn

Prezioa: 1.500 pta. t

Izena emateko: Martxoaren 13t1 20ra.

Elgoibarko Izarra E.

Ubitarte 4, behea

Tel.: 943 74 16 26

# GAZT





MARTIN DOMINGUEZ

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-hcandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

# Ibiltzeagatik zergak

Azken hilabeteetan autoa aldatzeko asmotan nabil, eta horretarako, merkatuan dauden autoei buruz zerbait gehiago jakiteko, aldizkari pila bat erosten dihardut.

Gutxi gorabehera badakit zein auto mota nahi dudan, ez daukat batere garbi, ordea, gasolina edo diesela erosi, gasoilaren azken gorakadarengatik. Baina bata zein bestea aukeratu, zalantza batzuk dauzkat. Adibidez, egunero edo oportretan erabiltzen dugun. Autoak, (gure gizartean denok edo ia-ia denok autoa claukagu, eta ez badaukagu lagunekin joaten gara) zeozer beharrezko bihurtu dira, eta ez bakarrik lan egiteko, baita beste edozer gauza egiteko ere. Hain beharrezkoa da, ezenlujo bat balitz bezala ordaindu behar dugun.

Ba al zenekiten karreteran dabilen auto merkeenak 5 izarretako edozein hotelek edo bitxi batek baino zerga handiagoak ordaintzen dituela? Ulertezina, ezta'? Ba ez da hor bukatzen ordaindu behar duguna. Gasolina edo gasoila botatzen dugunean %70eko zerga ordaintzen dugu. (Estatu Batuetan, adibidez, %30 ordaintzen dute, normala da hango kamioi batzuk gasolinazkoak izatea).

Lehenengo matrikulazioa, gero kon-

bustiblea eta lasai zaudenean, Udaleko zerga etortzen da, beste 17.000 pezeta gehiago (azken hau zilindradaren arabera ordaintzen da). Ez dakit, nola edo hala, baina autoa daukagunoi beti ateratzen digute dirua.

Telebistan askotan gogorazten digute Europako auto parke zaharretarikoa daukagula; zer nahi dute ba? Alemanian gehiago irabazten dute eta autoak merkeago saltzen dituzte. Ez aI da zoratzeko modukoa?

Elgoibarren badakigu industria kopuru handi bat autoak egiteko izaten dela. Zuzenean edo zeharka, baina kate horren bukaeran beti autoa aurkitzen dugu.

Ez da arraroa Gobernuak "Espaila va bien" esatea, gero eta

auto gehiago saltzen baitira, eta kontrara, prezioak gero eta gorago daude.

Ez da laguntza bakarria autoa erostera-koan dagoen "Plan Prever" delakoa. 80.000 pezeta dira, eta intzentibo txikia da auto zaharra aldatzeko. Ez dakit non dagoen irtenbidea, baina ez badute laguntzarik eskaintzen, Europako Seat 127, R5 zaharra edo 15 urtetik gorako auto bakarrak Espainian egongo dira.

**"Ba al zenekien karreteran dabilen auto merkeenak bost izarretako edozein hotelek edo bind batek baino zerga handiagoak ordaintzen dituela?"**

## B Birrak eta Barreak





Nafarroa enparantza, 2  
20870 ELGOIBAR

**943 74 41 12**

Publizitatea:

☎ 943 74 37 04

Faxa: 943 74 37 04

E-maila:

[barren@topagunea.com](mailto:barren@topagunea.com)

Helbide informatikoa:

[www.ihardun.com/barren](http://www.ihardun.com/barren)

ARGITARATZAILEA Elgoibarko Izarra  
LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala  
KAZETARIAK Irati Agirreazaldegi,  
Jon Eugi, Asier Orbea  
PUBLIZITATEA Andoitz Agirregomezkorta  
MAKETATZAILEA Bea Ansola  
AomiNiSTRazioA Amaia Martin  
GERENTZIA Rata Alvarez,  
M. Angeles Ortuoste.  
KoutgonATZAILEAK Ainhoa Andonegi,  
Aitor Argarate, Idoia Arozena,  
Aitzol Arriola, Martin Dominguez,  
Juanito Gorostiza,  
Arna4z Gorrili, Ion Gurrubcaga, KOKOE,  
Imanol Larrañaga, Aintzane Larrea,  
Ion Loiola, Ongarri Zine Kluba,  
Inigo Otaño, Jon Peti Uriguen,  
Iban Urizar, Amaia Urzelai,  
Maite Vallejo, Lourdes Zubiaurre.  
BANAKETA ARDURADUNA Imanol Larrañaga  
EUSKARA ZUZENTZAILEA Ibon Arriola  
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E.  
TIRADA 4.000 ale  
LEGE GORDAILUA SS-1.038/92  
ISSN 1139-1855

*Elgoibarko Udalak, Eusko  
Jaurlaritzako Kultura  
Sailak eta Foru  
Aldundiak diruz  
lagundutako  
aldizkaria.*



*mmommos*

*IMMEgizarte-ekintza  
obra social*

## IDANOISAT

**GOITI**  
GRUPO DANOBAT

**OHARRA:**

Irakurleoi jakinarai nahi dizuegu,  
BARRENeKo atal hau herritar guztien  
iritziak eta usteak jasotzeko egina dagoela.  
Beraz gairen bat buruan biraka baduzu ez  
birritan pentsatu eta ekarri edo bidali zuen  
idatzia gure erredakziora.

BARRENeK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adbrazitakoen erantzukizunik.  
Eskulitz guzliek ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko.  
Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, **NAN** eta telefono zenbakia.

- Bi emakume oso haserre etorri zaizkigu honako kexa honekin: "Errosario **kalean autoak ziztu bizian ibiltzen dira eta kalea oso estua dela kontutan hartuz, Errosario kaletik autoz joatea galerazi beharko litzatekeela uste dugu**, zerbait gertatu aurretik, Plaza Handian haur asko ibiltzen baita jolasean. Lehen, taxi geltokiaren ondoan dauden piboteak kentzen zituzten, eta Errosario kalean auto gutxiago ibiltzen ziren. Hori dela-eta Errosario kalea piboteekin itxi beharko litzatekeela uste dugu".

- Bi neska gazte etorri dira **BARRE**nera honako kexa hau argitaratzeko eskatuz: "San **Roke auzoko txoko batzuetan brik ontziak eta plastikoak botatzeko kontenedore horiak falta dira**. Batez ere, Erretxindin eta Pista Beltzaren sarreran nabari dugu kontenedore horien falta. Plastikoak, brik ontziak eta latak botatzera Arregitorrera joan behar izaten dugu. Beraz, dagokionari eskatu nahi diogu aipatutako lekuetan, beste kontenedoreen alboan, ontzi horiak ere jar ditzatela".

- Gazte batek honako kexa hau bidali digu, "Mintxetako **aldageletan dauan ile-lehorgailua ez dabil batere ondo**, sikatzen daban bakararra poltsikua da. Txanponak onartzen ditxu, baina gero ez dau ilerik lehortzen".



- Jubilatuen segurtasunaz kezkatutik, herritar batek kexa hau bidali diou "San **Frantzisko iturriaren bueltan dauden jardintxoetako harriek oso punta zorrotzak dituzte eta arriskutsuak dira bertatik pasatzen garenontzat**, batez ere jubilatuentzat eta jolasean ibiltzen diren haurrentzat".

- Mutil gazte batek pasa den **igandean Plaza Handian zegoen giro polita sortzearen arduradunak txalotu nahi ditu**, "igandean Plaza Handian ikusi nituen gazte-txoen arteko pilota partiduek eta talo janak ambiente aparta eta j atorra sorrarazi zuten".

- Emakume batek **Haizea Emakume Taldea txalotzeko** deitu digu, "Kultur Etxean antolatutako erakusketa oso polita eta interesgarria da, eta jendea erakusketa bisitatzerantz animatu nahi nuke".

# ISPI411%

## DEGIRA



*Aitor Ibañeta Arana*

**BASARTE jatetxekoa**

- **Zein da sukaldaria zuen etxean?** - Ama.

- **Janaria prestatu ala jan?** - Biak.

**Nongo gastronomia duzu gustukoena?** Bertakoa, baina badira kanpoko gauza batzuk ongi dandenak ere.

**Saltsa guztietako perejila al zara?** - Bai, halaxe naiz.

**Barra atzetik herriko berri asko jakiten al da?**

Nahi izanez gero bai.

**Etxeko espezialitatea zein da?** - Hemen prestatzen dugun dena da ona.

**Zer da zuretzat mahaian sekula faltan egon behar ez dena?** Ogia.

**Nor gonbidatuko zenuke zurekin bazkaltzera?**

- Laguntzat daukadan edonor.

**Eta zein lagako zenuke jan gabe?** - Etsairen bat ez nuke sekula gonbidatuko, baina bezero bezala etorriz gero, jaten eman beharko nioke.

**Bazkal osteko kafea ala afal aurreko pintxoa?**

Bazkal osteko kafea, baita afal ostekoa ere.

- **Bazkaltzeko ardoa ala ura?** - Ardoa.

**Argiñano ala Subijana?**

Subijana, gauza gehiago dakizki-eta.

**Bapo jan ondoren kontzientzia txarrik izan al duzu inoiz?** Noizbait bai, baina normalean lanegi beteta ere ongi gelditzen naiz.

**Begietatik ala ahotik sartzen zaizu jatekoa?**

- Lehenengo begietatik eta gero ahotik, noski.

**Egin entsalada bat bizitzako beharrezko elementuekin.** - Komunikazioa, adiskidetasuna, pazientzia, maitasuna, lan egiteko gogoia eta juergarako gogoia jarnko nizkioke entsalada horri.

- **Zerk kentzen dizu jateko gogoia?** Alperkeriak.

- **Jale ona, loti ona omen da. Bazkal ostean egiten al duzu siestarik?** - Ez, denborarik ez daukat-eta.

Martxoaren 13tik eta 18ra bitartean ireki ditu atea Makina-Erramintaren 21. Bienalak aurten. Elgoibarrek sektore horretan duen indarra kontutan hartuz, BARREN astekariak ezin zuen hutsik egin eta Bilbon izan ginen astelehenean, inaugurazio egunean. Bertan, Elgoibarko zenbait enpresetako kideekin hitz egin genuen. Makina Erremintaren gaur egungo egoera, teknologia berrien sorrera eta ikerketa, Euroa, giobatizazioa eta bienalari buruz orokorrean hitz egin dugu enpresari hauekin.

# 21BI

## ome el

- Langile kopurua: 29 langile
- Enpresaren sorrera: 1987. urtean.
- Produkzioa: Txiribien garraio eta ebakuaziorako instalakuntzak. Txiribiak tratatzen ditu makina erreminta eta instalakuntza zentralizatueterako eta olio eta taladrinen filtrazioak eta industria siderometalurgikoaren piezen mantentzia.
  - Pasa den urteko fakturazioa: 550 milioi.
  - Esportatzen duzue: %15a, batez ere Europako herrialdeetan.

Migel Angel Montes 'Cometel'eko gerenteak azaldu digunez, 6 makina eta borrikuntza bat aurkeztu dituzte aurtengo bienalean, "olioak iragazteko makina bat izan da aurkeztu dugun berrikuntza, olio eta taladrinen bizitza luzatzeko balio du". Bienalaren helburua ez dela produktuak saltzea esan digu, "bezeroekin harremanetan jartzeko eta enpresaren marka irudia saltzeko balio du azoka honek". Migel Angelen iritziz, makina erremintaren sektorea egoera onean dago, "Bienalean dauden erakustoki edo "stand" kopurua ikusi besterik ez dago. Sektorearen egoera onak izan du eraginik guregan eta azken aldian atzerriko beste herrialde batzutura zabaldu ditugu gure produktuak, nahiz eta gure enpresaren zati batek ba-

karrik duen erlazioa makina erremintarekin". Bestalde, enpresek ikerketan diru asko inbertitzen dutela esan digu, "konpetitiboak izan nahi badugu, produktuak uneoro hobetzea komeni da. Hori dela-eta, enpresek gero eta diru kopuru gehiago gastatzen dute I+Dn (Investigacion y desarrollo). Dena dela, gurea moduko enpresa txikientzat zaila da ikerketan aritzea, eta Tekniker moduko enpresa auxilia- rren laguntza beharrezkoa da".

MIGEL ANGEL MONTES  
GERENTEA



## TecniFuelle

- Langile kopurua: 15
- Enpresaren sorrera: 1990. urtean.
- Produkzioa: Hauspoak (termosoldatuak, itsatsiak, zirkularrak), aluminiozko pertsianak, biribilkagailuak (kaxadunak eta kaxa gabekoak) eta babesgailu espiralak.
  - Pasa den urteko fakturazioa: -
  - Esportatzen duzue: %15a Frantziara eta Alemaniara, batez ere.

'TecniFuelle' enpresan makina erremintarako osagaiak egi- ten dituzte. 'TecniFuelle'ko Itziar Telleriak azaldu digunez, "Bie- nala edo makina erramintaren azoka oso interesgarria da gu- rea moduko enpresa batentzat, gure produktua ezagutzera emateko aukera paregabea baita". Bestalde, sektorearen egoera aurten ona izan dela aipatu digu, baina hurrengo urte- an hobea izango dela gaineratuz. Ikerketa eta teknologia be- rrien sorrerari garrantzi handia ematen diotela ere esan digu, "Dena dela, laguntza eta bitarteko hobeagoekin ikerketaren arloa gehiago landu ahal izango genukeela uste dut. Euskal Herrian maila ona du ikerketak, baina instituzioek laguntza gutxiegi eskaintzen dutela iruditzen zait". Azkenik, ekonomia- ren globalizazioak eta Euroak makinaerremintaren sektorean izan dezakeen eraginari buruz galdetu diogu Itziari, "Euroa onuragarria izango denaren itxaropena daukat, eta globaliza- zioari dagokionez ere, onerako izango dela uste dut".

ITZIAR TELLERIA  
GERENTEA





## 4<sup>o</sup> DANOBAT

MAQUINAS HERRAMENTA

- Langile kopurua: 815 langile
- Enpresaren sorrera: 1952. urtean.
- Produkzioa: Tornoak, fresadorak, rektifikadorak, makina bereziak, zerrak eta pinzonadoreak.
- Pasa den urteko fakturazioa: 128 milioi euro.
- Esportatzen duzue: %70a.

Migel Angel Mujikak azaldu digunez, honako makina edo berrikuntzak aurkeztu ditu Danobat Taldeak: G-41, G-51 eta G-61 artezteko makinak (Rectifiadora), TV-400 W aluminiozko llantak, PSG-100-CF Plana, Gantry zerra eta FP-6000 eta RTM-2500 fresadorak. Mujikaren iritziz, "Bisita soil bati esker, bezeroek eta bitartekariak makina erremintaren sektoreak eskaintzen dituen berrikuntzak ikusi eta gainontzokookin konpara ditzakete. Hori da bienalaren helburu nagusia". Danobat Taldeak itxaropen handiak ditu etorkizunerako, "produktuetan eta soluzioetan Europa mailako lidergoa lortzea da gure asmoa. Honekin batera, gure ahaleginak pieza estrategikoetan finkatu nahi ditugu, hau da, automozioan. Azkenik, atzerrian ditugun inplantazioak indartu nahi ditugu". Ikerketa arloari garrantzi handia ematen dio Danobat Taldeak, "Ideo teknologikoen zentrua berrikuntza eta teknologia berrien sorrerarako euskarri aparta da Danobat Taldearentzat. Bezeroekin batera injinerutza lana egiteko aukera eskaintzen digu eta baita kalitate-zerbitzu eta prezio onena duten produktuak merkaturatzeko aukera ere".



M. ANGEL MUJIKAK  
KOMERTZIALA

## BRONCES GARITANO,

- Langile kopurua: 22 langile.
- Enpresaren sorrera: 1975. urtean
- 11 Produkzioa: Material ez ferrikoak: brontzeak, plastikoak, aluminioak, kobrea, latoia... eta matrizeriarako osagaia en banaketa egiten dugu.
- 111 Pasa den urteko fakturazioa: 600-700 milioi pezeta.
- Esportatzen duzue: %15-a, batez ere Hegoamerikara Fagorren bitartez.

Luken Garitanok eman digu 'Bronces Garitano' enpresaren berri. "2 zilindro berri eta kontrol panel berri bat dira bienalean aurkeztu ditugun berrikuntzak. Bienala ona edo txarra izan den, egindako kontaktu kopuruaren arabera neurtzen da". Makina erremintaren egoera ez dela dirudien bezain ona aipatu digu Lukenek, "espainiar estatu barruko merkaturako egoera onean dago, baina atzerriara egiten diren esportazioak %30a jaitsi dira azken urtean. Guri dagokigunez, makina erraminta beste sistema batzuetara moldatzen ari da eta lehen baino brontze gutxiago erabiltzen dute, baina makina erremintako enpresak ez dira gure bezero bakarrak, trokeleriako alor batean esaterako, Espainiako enpresa liderra gara. Bestalde, siderurgiako enpre-

sa handien mantenimenduan ere aritzen gara". Euroaren etorrerarekin enpresak konpetitiboagoak izan beharko direla azaldu digu, "merkatu berrietara zabaltzeko aukera eskainiko digu euroak, internetek egin duen moduan. Izan ere, interneti esker Rumania, Eslovenia eta Europar Batasunetik kanpoko beste herrialde batzuetara esportatzeko bidea ireki zaigu".

LUKEN GARITANO  
ZUZENDARI KOMERTZIALA





**PATXI ALDABALDETRERU:**

## “Makinak inoiz ez du gizakia menpean hartuko, baina ordezkatu, agian bai”

*Patxi Aldabaldetreku debarrak makina-erremintaren industrian eman du bere bizitza profesional ia osoa, eta arlo hori oso ondo ezagutzen du. Bestalde, beti izan da historia zale sutsua. Ezagutza eta zaletasun horretatik sortu da "Makitzak eta gizakia: gida historikoa" liburua. Pasa den astean egin zuen liburuaren aurkezpena Makina Erremintaren Museoan. Bilboko Makina Erremintaren Bienalean jarri zuen salgai liburua eta guk bertan aurkitu genuen. Ondorengo lerroetan bere liburuan ikutu dituen gaiei buruzko elkarrizketa irakur dezakezue.*



presak, hain zuzen, makina-erremintak jartzen hasi ziren lehenengo industria mota. Joan zen mendearen azken urteetan sortutako fabrika guztiek konponketak egiteko tailer mekanikoa zuten, ordezeko piezak egiteko beharrezko makina erremintez hornituta. Denborak aurrera egin ahala, enpresa hauetan trebatutako ofizialak tailer txiki osagarriak jartzen joan ziren, erremintak egin, ordezeko piezak mekanizatu eta makinak konpontzera dedikatu ziren enpresak. Hau guztia, lehenengo fabrikatzaile ingelesak hasi zirenetik 100 urtera gertatu zen. Beraz, makina erreminten fabrikatzaile moduan gure historia mende hasieran hasi zen.

**-Nota sortu zitzaizun "Makinak eta gizakia: gida historikoa" liburua idazteko ideia?**

Makina Erremintaren Museoan sortu ostean, bertan ikusi daitezkeen makinei eta funtzionarazi zituzten gizonei buruzko liburu bat idazteko beharra ikusi genuen, hau da, makina erremintaren bilakaera laburbiltzekoa. Makina mota ezberdinon jatorriari eta bilakae-rari buruz 30 urte luzetan bildu ditudan datuak eta ikerketak aprobetxatuz idatzi dut liburua. Bi atal nagusi ditu: lehenengoan, makina erremintaren arloaren mundu mailako historia ematen dut ezagutzera; bigarrenean, aldiz, gure industriaren eboluzioa eta posible egin zuten gizakiak aztertzen ditut.

**-Zein da makina erremintaren definizioa?**

Definizio ezberdinak dauden arren, honakoa aipatuko nuke: egoera primarioan dauden material zati batean lan bat burutzon duten makinak dira, esfortzu, perfekzio-maila eta denbora gehiagorekin edo gutxiagorekin gizakiaren eskuek burutu ahal izango luketen tana, alegia. Bestalde, makina erreminta, auto-errepuzitzeko ahalmena duen bakarra da. Merkatuan dauden makina, osagai eta metalezko produktu

guztiak makina erremintak erabiliz egindakoak dira.

**-Nola errotu zen makina erreminta Elgoibarren eta inguruetan?**

Makina erremintaren fenomenoaren sortzeko, aurrez tradizio siderometalur-

**"Makina Erremintaren Museoan ikusi daitezkeen makinak eta funtzionarazi zituzten gizonen historia idatzi dut"**

gikoa izatea beharrezkoa da. Romualdo Garcia izan zen makina erreminta Elgoibarren garatzeko oinarriak jarri zituena, bera izan baitzen San Pedro siderurgi fabrika martxan jarri zuena. Gainera, fabrika honetan prestatu zen profesionalki Eulogio Estarta, makina erremintak fabrikatu zituen lehenengo gizonetako bat.

**-Armagintzaren industriak garrantzi handia izan zuen makina-erremintaren garapenean, ezta?**

Bai, Debabarrenean, 1860tik aurrera sortu ziren armagintzako lehen en-

**-Zein izan zen lehenengo makina erreminta enpresa Elgoibarren?**

1914. urtean Jose Leon Ciaranek eta Eulogio Estartak, "Ciaran y Estarta" sozietate erregular kolektiboa sortu zuten, Elgoibarko lehenengo makina-erreminta fabrika. Sozietatearen rua suzko armentzat piezak egin eta arma-industria edo antzerakoekin erlacionatutako makinak egitea zen.

**-Gaur egun, esan al dezakegu gizakia makinei nagusitu zaiela?**

Bilboko azokako makinak ikusi ostean, irudipen horrekin atera gaitzke, baina oraindik gauza asko hobetu daitezke, eta lan asko dago egiteko.

**-Eta, alderantziz makinak inoiz dominatuko al du gizakia?**

Zorionoz, hori oraindik zientzia fikzioa da. Ez dut uste makinak inoiz gizakia menpean hartuko duenik, baina ordezkatu, agian bai. izan ere, produktioa da hemen agintzen duena, ahalik eta denbora laburren produktio altuena ateratzea, alegia. Dena dela, gizakiaren eskuatzea ezinbestekoa da oraindik.



Jose Inazio Berra izenez elgoibartar gutxi ezagutzen du seguraski, aste honetako gure elkarrizketatua. Ia denok "Thaki el loco" goitizenez ezagutzen dugu ostegunero Plaza Handiko merkatua alaitzen ibiltzen den saltzaile hau. Duela 58 urte Pasai San Pedron jaiotako "saltsero" honek, merkatuan garrasika ibiltzeak poza ematen diola esan digu. Momentuz ez dauka jubilatzeke inolako intentziarik, "oraindik urte askotan segituko dut garrasika" aitortu digu elkarrizketan.

# JOSE INAZIO BERRA

## "Nire poza Plazako merkatuan garrasika ibiltzea da"

### — Zenbat urtetan etorri zara Elgoibarko merkatua?

Duela 24 urte hasi nintzen herri ezberdinetara tzeraz joaten. Baina 22 urtefon etorri naiz Elgoibarrera. Ostegunero etorri naiz hurrez geroztik, edozein eguraldirekin, euria, elurra edo kazkabarra egin.

### — Merkatuz merkatu ibiltzea duzu gustuko, ezta?

- Hiru denda daukat: bi denda Donostian eta bestea Pasaian. Baina hor egotea baino gehiago, herriz herri saltzen ibiltzea gustatzen zait. Nire poza kaleko merkatuan garrasika ibiltzea da.

### — Izan ere, horregatik ezagutzen zaitu jendeak.

Garrasi egiten dut jendea piska bat hurbiltzeko. Honetatik "el loeo de la plaza" deitzen didate. Toki guztietan izen horrekin eza-

gutzen naute. Fama hori daukat, beti berdinaritzen naizelako. Baina bizitza normalean, lana bukatu eta hurrengo egunera arte gutxi hitz egiten dut, serioa naiz. Oihuka aritze hori barnetik ateratzen zait. Normalean badu eragina, jendea erakartzen du-eta. Isilik gelditzen naizenean, jendeak ea zer-bait gertatzen zaidan galde-tzen dit.

### — Nolako bezeroa da Elgoibarkoa?

- Elgoibarko jendea jatorra da. Beste herri batzuetan jendeak bastante regateatzen du. Hemen gutxiago, hemen 1.000pta. esan eta hori ordaintzen dute. Normalean ondo konpontzen gara. Jendeak ekartzen dudana jeneroa baloratzen du, nolako kalitateko arropa daukadan. Prezioari begiratzen diote, baina normalean postu bakoitza nolakoa den ezagutzen dute.

Jada urte askoan etorri gara hona eta bezeroak ezagutzen gaitu. Egunduean, gezur txiki bat esanez gero, edo kalitate txarreko zer-bait salduz gero, hurrengoan ez da etorriko. Bezeroa zaindu egin behar da, niretzat dogma bat da hori.

### — 22 urtetan gora behera asko ezagutuko zenituen, ezta?

- Bai, asko. Lehen, adibidez, merkatua beste leku batean zegoen, Plaza Txikian. Nahiko antzerakoa da, jendea hara edo hona berdin etortzen da. Orain, Plaza Handian, goizean etorri eta lekua libre egoten da; dena inongo eragozpenik gabe jartzen dugu. Plaza Txikia, alderdi horretatik okerragoa zen, arazoak zeuden autotekin, bizilagunekin... merkatua ipintzeko okerrago zegoen. Hau hobeto dago jeneroa kargatzeko eta deskargatzeko.

### — Inguruko herrietan ere egiten duzu lan?

- Inguruko herrietara ere joaten naiz. Beti ibili naiz batetik bestera. 20 urtetan zehar igandean Zornotzara joan izan naiz. Orain ez naiz joaten, astean nahikoa mugitzen naiz, eta atsedena hartu beharra izaten dut. Baina arratsaldean igual bidaiaren bat egiten dut, produktuak ikustera edo arropa hartzera joaten naiz. Astelehenean eta igandean izan ezik, gaintzeko egun guztietan egiten dut lan. Hala ere, astelehenean igual dendara joaten naiz. Egunduean lan eta lan aritzen naiz, besterik ez dut ezagutu nik, lana. Txikitxikitatik ibili naiz horrela eta orain ezin dut laga.

### ESTEEK ESANA

"Merkatuan lan egitea bere bizitza da."  
HARKAITZ BERRA, semea.



• **Ibilgallu berezientzako pasabide bat jarriko dute lidgez de Karkizanon**

Iñiguez de Karkizano kaleko bizilagunen onespena jaso ostean, Udalak Urruzunotik kale honetara bitartean pasabide bat egiteko asmoa dauka. Horretarako, gaur egun dagoen horma botako dute eta piboteak ipiniko dituzte. Pasabide hau, ordea, ezin izango dute ibilgailu guztiek erabili, bereziek bakarrik baizik, hau da, anbulantziek, suhiltzaleen kamioiek...

• **AEH euskaltegiako zuzketaren zenbaldak hadu irabadea**

AEK euskaltegiak urtero antolatu ohi duen zozketaren aurtengo zenbaki saritua 71.941 izan da. Zenbakia Bergaran saldu zen eta eroslea jada agertu da. Elgoibarko AEK euskaltegiak eskerrak eman nahi dizkie errifak saltzen eta erosten lagundu dien guztiei.

**San Migelerako errepedearen aldamenean lurra botatzeko baimena eman du Udalak**

Gehienez 5.000 m<sup>3</sup> bete ahal izango dituzte lurrez

**S**an Migel gainera iritsi baino lehen, errepedearen ezkenetara, bihurgune handi baten aldamenean dauden tenenoen egokitzapena egiten hasi dira. Hasieran, debekatua zegoen bertara obretako lurra botatzea, baina inongo bainnenik izan gabe terreno haietan lurra bota zuten. Hau, joan den urteko ekainean gertatu zen. Debekatua zegoenez, Udaleko arduradunek espediente administratiboa irelu zioten lurrak zabortezi bezala erabili zituen enpresari, eta baita multa jarri ere.



*Terreno horietako lanak bukatu ondoren, baliteke Udalak errepedea ere konpontzea.*

Orain lurra botatzea onartuta dago. Eusko Jaurlaritzako Ingurugiro sailari lurren egokitzapenerako proiektu bat aurkeztu zioten eta baiezkua jaso ostean, tenenok lurrez betetzen ari dira. Gehienez, 5.000 m<sup>3</sup> lur bota daitezke bertara. Guztia bete ondoren, ingurua txukuntzeko ardura hartuko dute. Horretarako, zuhaitzak landatuko dituzte terreno horretan.

Udalaren eta Jaurlaritzaren baimena ingurua aldatu egingo dute, baina Udaletik adierazi digutenez, lehengo funtzio bera beteko du orain ere, hau da, mendiko pis-

ta izaten jarraituko du. Beraz, Udaletik herritarrei jakinarazi nahi zaie, terreno horietan lanean ari direnek baimena daukatela eta ez direla inolako "delito ekologikorik" egiten ari. Eusko Jaurlaritzak baimen hori emateko baldintza batzuk betearazi dizkio enpresari: Lur horietan ezin dute zaborrik bota, obretako lurra eta hariak baino ez.

Bestalde, Guillermo Garatek esan digutenez, "baliteke terreno horietako lanak bukatu ondoren, Udalak errepedea bera ere konpontzea, bihurgunea oso txarra baita".

<==i111

**JOSE, I; (tw.a1)  
(Txema)**

**Mota guztietako pintura eta enpapelatuak. Zoluak, moketak, sintasola, korbma, etab. jartzen dugu**

San Bartnlorne, 28-1 ezk  
Tek 943 74 12 55  
Mablia: 629 44 23 14



**rilciesiLa**

ERRAKOREAK eta OSAGAI HIDRAULIKOAK eta NEUMATIKOAK

PIEZA BEREZIEN MEKANIZAZIOA eta DEKOLETAJEA

INDUSTRIAS METALA, S.L  
SANTA KLARA KALEA, 34  
TEL.: 943 74 28 50 - 943 74 28 54  
FAXA: 943 74 05 38  
84 Postakutxa 20870 ELGOIBAR  
E-posta: metala@metala.es  
[www.metala.es](http://www.metala.es)



# BRONCES GARITANO, S.A.



MATRIZEGINTZARAKO  
ELEMENTU NORMALIZATUAK



MATERIAL  
EZ-FERRIKOAK

## MATRIZEGINTZARAKO MALGUKIEN eta NITROGENOZW ZILINDROEN INPORTATZAIL



BORDIGNON



MATRIZEGINTZARAKO KROMO  
BANADIOZKO MALGUKIAK



NITROGENO ZILINDROAK

OLASO KALEA, 15 . 127 Postakutxa 20870 ELGOIBAR (GIPUZKOA)  
Tel. 943 74 41 25 943 74 41 26 • FAX: 943 74 41 55

### **gabov lijdalbiltzan sartzea onartu zen alderdi abertzaleen botoei eSICEP**

**EHk aurkeztutako eskubide sozialen kartari buruzko mozioak ezezkoa jaso zuen**

Igoibarko Udala Udalbiltzan, Euskal Herriko 7 herrialdeetako alkateen eta inegotzien erakundearen, sartzea onartu zuen plenoak joan den ostegunean. Erabakiak alderdi abertzaleen aldeko botoa eduki zuen, hau da, EAJ, EA eta EHrena. PSE-EE eta PP alderdiak, aldiz, abstenitu egin ziren. Gainera, egitasmo hau bultzatzeko 500.000 pezetako diru kopurua onartu zen. EH alderdiko bozeramalea, Asier Zengotita, ados agertu zen mozioarekin, baina tratamendua kritikatu zuen. Izan ere, bere ustez, horrelako erabaki bat pleno berezi batean hartu behar zen. "Ez da momentu aproposa, justu hauteskunde kanpainan gaudenean", adierazi zuen Zengotitak. Halere, EHk baiezkota botoa eman zuen eta mozioa onartuta gelditu zen baiezko 12 botu eta 3 abstentzio jaso ostean.

#### **Eskubide sozialen karta**

**Bestalde**, plenoak ezezkoa eman zion EHk aurkeztutako eskubide sozialen kartari buruzko mozioari. EHk zazpi puntutako mozioa aurkeztu zuen. Alderdi honek mozioa puntuz puntu bozkatzeari nahi zuen, baina Gillermo Garate alkatearen aginduz osotasunean bozkatu zuen. Azkenean, baztertuta gelditu zen aurkako 10 botorekin (EAJ eta EArenak), aldekoak 5 bakarrik izan ziren-eta. Besteak beste, langabetuentzat gutxieneko soldata, aparteko orduak debekatzeari, iruzur fiskala borrokatzea eta enplegurako batzorde bat sortzea eskatzen zuen Euskal Herritarrok alderdiak. Ovidio Campellok, PSE-EEko ordezkariak, ados agertu arren, aurkeztutako puntuei ñabardura batzuk gehitu nahi izan zizkien. Horrela, Uddari 35 orduko lan astea ezartzea eta enplegu batzordeak politika industrialaren barnean hartzea eskatu zion.


Eusko Alkartasunako zinegotziak, Inazio Mugerzak, beraien ezezko botoa arrazoitu zuen. "Puntu komunak ezberdintasunak baino gehiago dira, halere, diferentzietan bultzatuta, ezezkoa emango dugu". EAJ alderdiak mozioaren aldeko argudioak

demagogikoak zirela aipatu zuen eta ez zuen eskatzen zenaren alde egoteko arrazoirik ikusi. "35 orduen efektibitatea ez dago argi, soldata sozialak onartu ezin diren kostuak ekarriko lituzke eta demagogikoa da iruzur fiskalari aurre eginez dirua lortuko iitzatekeela esatea", azaldu zuen J. M. Oruesagastik.

#### **Bake epailearen ordezkaria**

Halaber, osteguneko ezohiko plenoak bake epailearen ordezkari Mikel Lizarralde izendatu zuen. Mikel Lizarralde aldeko 8 boto eskuratu zituen, EAJ-ko zazpi zinegotzietatik eta PP-ko ordezkari bakarrarenak (Iñigo Arkauz ez zen Udallexera agertu).

Azkenik, plenoa bukatu aurretik, Udal Kirol Patronatuko estatutueta 12. artikulua aldatu zen, horri esker, aurrerantzean, talde guztiak proportzio berean egongo dira ordezkariak.



*Mikel Lizarralde bake epailearen ordezkari izendatu zuen plenoak. Aurrerantzean berak beteko du postua Isabel Azpeletak epaile lanak egin ezin dituenean.*

### **Udalean euskararen ezaguera zenbatekoa den adierazten duen txostena onartu zen**

Martxoaren 9ko, plenoan euskararen erabilera planaren bideragarritasun txostena onartu zen. Txosten honek alkateak, zinegotzietatik eta langileek zein euskara perfil daukaten eta lanpostuetan zein euskara maila erabiltzen den adierazten du. Txosten honi esker egotzera nolakoa den dakite Euskara Batzordean. Horrela, datu horiek edukita, erabilpen plana zehaztuko da eta ondoren martxan jarriko da Udalean. Barne funtzionamenduan eta kanpora begira, herritarrei eskaini beharreko zerbitzuetan, euskarak nolako tokia eduki behar duen finkatuko da.

Izan ere, lege baten arabera, edozein herritako Udalak zerbitzua euskaraz eskaini behar dio herrian dagoen euskaldungoari. Elgoibarraren ere gai horri heldu zaio eta hori bete nahi da. Beraz, txosten hau lehendabiziko pausoa da. Asier Zengotitak, Euskara Batzordearen buruak, garrantzi handia eman zion txosten honen onarpenari, azken lau urteetan geldi egon baita. EHko zinegotziaren helburua, herritarrek Udalarekin euskara hutsean harremana eduki ahal izateko sare bat osatzea da. Bide horretan, orain onartu den bideragarritasun txostena ezinbestekoa da.



## Jesusa Kortabitarte eta Sabino Aranburu

### "Benidormen moduko anbienterilelm t9T 01R.TIM

**Argazki pila bat eslcu artean hartuta etorri zaigu Jesusa BARREnera. Guztiak azken urteotan egindako bidaietako argazkiak dira. Bat aukeratzeko lanak izan ditugu, izan ere, toki asko ezagututakoa da Jesusa eta bere senarrarekin erretratu pila bat atera ditu. Batzuek apartatu ondoren, Jesusarekin bidaiei buruz berba egin dugu.**

#### - Azken urte hauetan egin dituzue aehien, ezta?

- Bai, lehen tabernia euki genduan, ez genduan inora juteko astirik euki. Agostuan hamabost eguneko bakazivak hartu eta orduan eitxen genduzen biyaiak. Oin, berriz, zela urte guztian bakazivak dakaguzen, edozein sasoi txan juten gara.

#### - Espainian ezezik, munduko beste hainbat txokotan ere izan zarete.

- Leku askotan egon gara. Oin dala bi urte Ameriketara izan ginan. Anaixa dakau han eta bera nun bizi zan ikusteko gogua gendukan. Tabernia laga baino lehen, udako opor batzuetan Erroman ere izan ginan. Hamar eguneko organizatutako eskursio bat izan zan, bizkor ibiltzekua. Goizeko seiretan jaiki eta leku batetik bestera, gauzak ikusi bihar badia, halaxe ibili bihar da.

#### - Estatuan ere toki asko ezagutu dituzue.

- Ibizan, Benidormen, Palma de Mallorcan eta Kanariasen ere hiru bider-edo egon gara. Iaz Kanariasen, "Costa del Silencio" deitzen dan tokian izan ginan eta oso leku trankila da.

#### - Ez al duzue etxea penaz lagatzen?

- Ez, pozik juten gara, baina baitxa bueltau ere. Neri perezia maletak eitxen hastiak ematen ditz, behin maletak inda urten ezker... ondo pasatzen dogu.

#### - Bisitatu dituzuen lekuetatik zein e gehien austatu zaizuen?

Ixa danak gustau jakuz, baina Ibizak ez zigun hainbesteko graziazik ein. Benidorm, berriz, oso politxa da, hiru bider eon gara bertan. Hamengo jendiantzat han dao ambiente gehixen. Ezagun asko eoten da eta han goizian goizetik terrazetan orkestia izaten da. Bakoitzak erabakitzen dau dantzari geratu ala plaiara jun. Hangua moduko anbienterikan ez dao beste lekuetan.



**Jesusa eta Sabino Tossa del Mar-eko jardinetan batzuetan ateratako argazkia da hau.**

#### - Eguzkia dagoen tokira joaten al zarete beti?

- Bai, ahal dala bai. Plaiara jutia gustatzen jaku-eta. Negu aldera ere Kanariasera jun izan gara. Han ma epela segurua da beti, hemen, berriz, ez dao holakorik.

#### - Orain denbora libre bat bidaiatzeko aprobetxatzen duzue, ezta?

- Bai, nik beti esaten dot ointxe dakuzela urte bat edo bi aprobetxatzeko eta horrek pasautakuan alperrik dala 'biagian jun banitz...' esatia. Iaz hiru biage in genitxuan, lehenengo Kanariasen egon ginan, gero Gandian eta azkenengo, Xacobeua zafata, Galiziarara jun ginan. Oin, abilian, Lloret del Mar bisitatzeko asmua dakagu eta gero beste biage bat eingo dou igual Benidorm aldera.

#### - Egindako bidaietatik zer geratu zaizue gogoa?

- Erromako gaba dakagu goguan, baina ez gustau jakulako, pasautako bildurratxik baizik. Jun ginan karterekin kontu haundia eukitzeko esan ziguen eta azkenian ez genduan ganoraz ezer ikusi. Albora beitu eta ikusi eitxen zan inguruan zeozetan zabizela. Palma de Mallorcan, berriz, kinkileruak ibiltzen dia kalia. Egun batian merkadilo batera jun ginan eta diru piska bat gehitxua hartu naban aldan. Andra zahartxo bati timua in bihar ziuela ikusitxa, haretxen errukixan eon nintzan eta azkenian konturatu nintzan neri kendu ziela karteria. Goguan rekuerto txarrak bakarrik hartu ditzut.

## Mozorro dantza

4

Inauteriak ahaztu antzean ditugu batzuk, izan ere atzera gelditu dira denboran, baina izango dira jadanik datorren urteko mozorroa prestazen hasitakoak ere. Guk bere garaian honen berri eman ez eta orain Jubilatuen Etxean egin ohi den mozorro lehiaketari buruz hitz egingo dizuegu.

10 urte inguru izango dira Elgoibarko jubilatua etxeko disfrazak armairutik atera, soinean jantzi eta Jubilatuen Etxeko mozorro lehiaketara aurkeztzen hasi zirenetik. Igandero eta jai egun berezietan Getatxo orkestra izan ohi da Jubilatuen Etxeko giroa alaitzen eta inauteri asteartean ere berak ipintzen du musika.

Hainbeste urtean denetariako disfrazak ikusi dira Jubilatuen Etxean eta epaimahaiak lanak izaten dituzte onena aukeratzeko. Mozorro jaietan saltsa eta dantza ibili ostean sarien ordua iristen da. Gelatxo orkestako kideak bildu eta mozorroren originaletan zein diren erabakitzen dute. Aurtengoan 8 partaide zeuden eta guztira 3 sari banatu zituzten, bi bakarkako eta bikotearentzako bestea. Sariak sinbolikoak izaten dira gehienetan, oroigarriak, baina irabazleek eta partehartzaileek saria bera baino Gelatxoren doinuen erritmoa igarotako arratsaldea izango dute gogoan. Inauteriak joan ziren, baina guk horri honetara aurtengo mozorro lehiaketako irabazleentzako bat ekarri dugu jai nola bizi izan zuen jakiteko.

Lidia Iriarte

## inauteria odolean daramat"

**Noiztik mozorroren zuzen zuzen?**

Txikitatik bizitza guztian mozorrotu izan naiz. Tolosan jaioa naiz eta inauteria odolean daramadan zerbait da. Ni ez mozorroren zerbait grabea gertatu behar zait eta hori gertatuz gero, negarrez pasako nuke eguna.

**- Beti hartu ai duzu par.. Jubilatuen Etxeko lehiaketan?**

- Ez aurtengoa izan da Iehenengo aldia. Beste plan batzuk neuzkan egun hortarako, baina azkenean ez ziren ongi atera. Lagun batek esan zidan Jubilatuen Etxean lehiaketa zegoela eta giro ona egoten zela. Ez nintzen sariarengatik joan ongi pasatze aldera baizik.

**- Mozorroa zuk prestatzen al duzu?**

- Aurtengoa tela merke-merke erosi eta nire lagun Isabelek josten lagundu zidan. Beti nik prestatu izan dut trapuren bat hartuta. Urte batean zaku bat hartu, lejiatan sartu eta harekin india mozorroa egin nuen.

**- Aurtengoa irabazlea izan zara, pozik sariarekin?**

- Sariak berak baino gehiago irabazle izateak egin zidan ilusioa. Irabazi nuela eta jende aurrera ateratzeko deitu zidatenean ingurura begira hasi nintzen beste norbaiti esan ziotela uste bainuen. Saria polita da, baina lagunekin

dantzan eta mozorroren arratsalde polit bat pasatzea bezalako saririk ez dago.

**- Datorren urtean ere aurkeztuko al zara lehiaketara?**

- Jainkoak nahi badu bai. Gainera hasi naiz buruari bueltak ematen eta badaukat ideia-idea bat edo beste datorren urteko disfrazak prestatzeko.



*Tela erosi eta bere lagun Isabelek josten inauterietako mozorroa*

# ETA ZUK, LLR DIOZU?

## Erretzailea al zara?

Tabakoak gaitz asko eragiten dituela gauza jakina da eta baita asko erretzen duen jendeak hihotza eta birikak hondatzeko erraztasun gehiago clauzkala ere. Baina urte luzetan erretzera ohitu denari zaila egiten zaio zigarroak albo batera lagatzea. Adin guztietako erretzaileak daude, baina tabakoaren eragin kaltegarriak gehiago pairatzen dituzte nagusiek. Izan ere, beraien bizitzako clenbora luze bat eman dute erretzen eta askok ez daki tabakoak kalte egin diezaiokeenik ere. Gu Elgoibarko pertsona nagusiei erretzaileak al diren galdetzera ausartu gara eta guri erantzuteko prest azaldu direnak hehinzat, tabakoarekin inongo arazorik ez dutela erakutsi digute.



**Juan Mella**  
75 urte

Ez, oso gutxi erretzen dut. Igande edo jaiaren baten fariasen bat baino ez, beste tabakoa ez dut erretzen. Lehen gehiago erretzen nuen baina utzi egin nion. Hala ere, ez dut uste osasunarentzat kaltegarria denik. Nire aitak erre egiten zuen eta ez zen horregatik hil.



**Maria Pareja**  
67 urte

Ez, ez dut sekula erre ez zaidalako gustatzen. Etxean alabak erretzen du, baina beste inork ere ez. Aita erretzailea nuen, egunean pakete bat erretzen zuen, baina tabakoak ez zion inongo gaitzik eragin.




**Amparo Cruz**  
74 urte

Ez, baina ez naiz erretzaileen aurkakoa, baikoitzak egin dezala nahi duena. Niri ez zait tabakoa gustatzen eta horregatik ez dut horrelako biziorik sekula izan. Nire gurasoen garaian, gainera, emakumeek erretzea gaizki ikusita zegoen.



**Maria Teresa Usabiaga**  
78 urte

Ez naiz erretzailia, zaharra naiz-eta. Nik ez dut inoiz erre, baina etxian semiak erre izan dau, asko gainera, baina gero laga zuan. Ni aintzinakua izanda ez dot sekula erre, baina ez gaizki ikusitxa zaualako, gure aitxa zanek ere asko erretzen zuan-eta.



**Jose Maria Zelaia**  
59 urte

Ez, inoiz puro bat edo-hola bai, baina bestela ez dot erretzen. Sasoi baten hasi nintzan erretzen, baina neretzat ona ez zala ikusitxa, utzi ein nion. Iruditzen zait, bate-tik gastua dala eta bestetik, osasunantzat ere ez dala ona.



# Alergiak

Udaberria ate joka daukagu eta urte sasoi honetan oso ohikoak izaten dira alergiak. Ez dira gaixotasun larriak, baina mota honetako gaitzak jende askok izaten ditu. Beti ez da jakiten alergiaren eragilea zer den, hala ere, kasu gehienetan polenak eta hautsak sortzen du gaitza, baita akaroek eta animalien ileek ere. Sendagile gehienek alergia kasuetan botikak hartzea gomendatzen dute, baina alergia kasuetarako guk ere hainbat aholku emango dizkizuegu.

ERREZETIA • ERZETIA



Angel  
Beristain

**Makailua**  
**Club Raneo erara**  
**(pertsonarentzat)**

1. Asko eta asko dira alergiaren bat izan arren bere eragilea zein den ez dakitenak. Komenigarria da norberak alergikoa dela jakitea eta hori kontuan hartzea.

2. Alergiak heredentziaz jaso ohi dira, hala ere, norbanakoak faktoreak zein diren jakin beharko du sentibilizatzeko.

3. Sintomak bizitzako lehen urteetan hasten dira agertzen, bost urtetik aurrera areagotu egiten dira eta oso arraroa da 60tik gora alergiaren aztarnak egotea.

4. Gaixotasun alergiko gehienak medikazioen bidez sendatzen dira edo gaitzaren kalteak gutxitzen dituzte behintzat. Hala ere, badira botiken bidez senda ezin daitezken alergiak.

5. Alergikoa izanez gero eta urtero, udaberria iristean, gaitzaren sintomak agertzen bazaizkizu, lehendabiziko sintomak agertu baino lehen, gai horretan aditua den sendagilearegana joatea komenigarria da. Horrela, medikuak sendagairen bat emango dizu gaitza gehiagora ez joateko edo kroniko bihurtu ez dadin.

6. Alergologoarengana joanez gero, berak esango du zein motatako alergia den eta zein neurri hartu behar diren. Zein ingurutan ibili eta zein tratamendu egin adieraziko du.

7. Polena ezin da ebitatu landareen loratze sasoiaren, baina bere eragina gutxitu daiteke honako metodo hauekin: etxea aireztatuz, eguzkitako betaurrekoak erabiliz eta beti autoko lehioak itxita daudela bidaiatuz.

8. Tabakoaren kea dagoen lekuetatik urrun ibili eta ez lorik egin loreen edo landareen aldamenean. Ahal izanez gero, etxe barruan ez eduki polenizatzen duten landararik.

9. Neguan ez eduki etxea lehor. Horretarako berogailuen gainean baso bete ur jar dezakezue. Zuen alergia akaroek edo hongoek sortzen badute, humidifikadorerik ez erabili.

10. Ez animalirik izan etxean, familian abereren bat egonez gero, produktu berezi batekin garbitzea komeni da. Kosmetikoen, botiken eta jakien etiketak irakurtzeko ohitura hartu, alergia sortzen digun osagaiaren bat duen jakiteko.

## OSAGAIAK:

Kilo eta erdi makailu, olioia eta berakatza. Saltsa egiteko: Tipula bat, 4 piper berde, piper gorri pote bat, olioia eta ardo zuria.

## PRESTAKETA

Lehendabizi makailua oliotan jarriko dugu berakatzarekin eta gelatina ongi aterako diogu. Ondoren, saltsa aparte prestatuko dugu. Horretarako, tipula eta piperrak laukitxotan zatitu eta zartaginean biguntzen ipiniko dugu. Biguntzen ari diren heinean, piskanaka ardo zuria botako diegu. Osagaien erdia hartu eta purea egingo dugu eta makailuari botako diogu. Ondo egiten denean, beste erdia makailuaren gainean jarriko dugu adornatzeko. Guztia lapiko batean txukun ipinita jateko prest egongo da eta plater goxo honekin bapo geratuko gara. On egin denoi!



**IKASTARO GUZTIEK 136 ORDUKO IRAUPENA IZANGO DUTE. 2000-04-01 elik 2001-03-31 ra.**

IKASTAROA	NORENTZAT	PLAZA LIBREAK
Ingelesa 1. maila	Lehen aldiz ikasten dutenentzat	6
Ingeles ertaina 3	Ezagupen baxua dutenentzat	3
Ingeles ertaina 4	Ezagupen ertaina dutenentzat	4
Ingeles ertaina 6	Ezagupen ertain-altua dutenentzat	6
Ingeles aurreratua	Ezagupen aurreratua dutenentzat	7
Cambridgeko azterketa	First azterketara aurkeztuko direnentzat	10
Cambridgeko azterketa	Advance azterketara aurkeztuko direnentzat	10
Cambridgeko azterketa	Proficiency azterketara aurkeztuko direnentzat	10

**Maila jaldteko frogak egiten ditugu inongo konpromisorik gabe.**

**Informazio gehiago jasotzeko deitu honako telefonoetara: 943 74 02 36 eta 943 74 35 12**

**Goizeko 9:00etatik 13:00etara eta arratsaldeko 15:00etatik 20:30era.**



GIPUZKOAKO HIZKUNTZA  
IRAKASLE ELKARTEKO  
BAZKIDE

P. MUGURUZA, 8 - 20870 ELGOIBAR  
TEL/FAXA: 943 74 02 36  
TEL: 943 74 35 12  
E-MAIL: kensingtoneredestb.es

EGUZKI AUZOA, 5  
20577 ANTZUOLA  
TEL: 943 78 70 30

## ELGOIBARKO B.H. INSTITUTUAK HONAKO 1KASTAROAK

### ESKAINTZEN DITU LANGILEENTZAT DOHAINIK *HOBETUZEKIN*

• Windows 95/98	20	• Kalitatearen garrantziaz ohartzea	20
• Word testu tratamendua (HASIERA. AURRERATLIA)	36	• Bileren gestio zuzena	20
• Excel kalkulu orria (HASIERA. ALIRRERATUA)	36	• Kalitatearen Barne Auditoriak	20
<b>a</b> Access data basea (HASIERA. AURRERATUA)	36	• EFQM kalitate Osoko Eredu Europearrara sarrera	20
• Internet	20	<b>z</b> Kalitateari buruzko Finkapen Sistemak: ISO-9000 ARABAK	20
• Power Point aurkezpenak	20	<b>ffi</b> Kalitateari buruzko eskuliburua egitea	20
<b>ffi</b> Windows NT	20	<b>ffi</b> Hobekuntza jarraitua eta lan talderako tresnak	20
• MS Frontpage 98	20	<b>ffi</b> Euroa. Txanpon beniaren ondorioak enpresan	20
• Exchange 5.5 eta Outlook 97	20	• PYME etako direktiboentzat gestio eta administraz.	25
<b>ffi</b> Infomiatikako ekipo mantenimendua	30	• Nominak eta seguritate soziala	36
• MS Project 98	20	<b>ffi</b> Oinarrizko kontabilitatea	36
<b>ffi</b> Photoshop 5.0	30	• Zergak	30
• Corel Draw	30	<b>iii</b> Denboraren kudeaketa eta eskuordetzea	20
• Mekanografia informatizatua	20	<b>E</b> Bileren ustiapena	20
• Marketing-aren hasera orokorrak	36	• Planoen interpretazioa	30
• Zerbitzu empresentzako Marketing-a	30	<b>ffi</b> Soldadura elektrikoa eta MIG-MAG	45
• Salmentarako teknikak	36	<b>ii</b> Soldadura elektrikoa eta TIG	45
<b>a</b> Bezeroari harrera pertsonal eta telefonikoa	30	• Makinen margoketak	30

**ELGOIBARKO B.H. INSTITUTUA • Arregitorre, 2 • Tel: 943 74 80 19 Faxe: 943 74 82 30**

**20870 ELGOIBAR • e-mail: bulegoa@elgoibar.hezitek.net**



1 711 111 111  
 :1 A(•111N



**Grupo Danobat - Arriagako plantak - Elgoibar**



ONDRAGON  
 M011:1CH (-1W111117)

# Tecnifuelle

**FABRIKAZIO PROGRAMA**

- Hauspoak:** Termosoldatuak, itsatsiak, zirkularrak.
- Biribilkagailuak:** Kaxadunak eta kaxa gabekoak.
- Aluminiozko pertsianak.** Aluminio estrumentua
- Babesgailu espiralak:** Malguki-altzairua eta altzairu herdoilgaitza.



Datu gehiago jakin nahi izanez gero, eska ezazu gure katalogo orokorra.



**Tecnifuelle 5.A.**  
**Santa Ana, 38**  
**105 postakutxa • 20870 ELGOIBAR**  
**Tel. 943 741 451 • Faxa: 843 740 955**

## Lorelitaldeak 'Tatuatu zenidan zeruai diskoa aurkeztu du Elgoibarren

Lorelei talde eibartarrak 'Tatuatu zenidan zerua' diskoa aurkeztu zuen joan den ostindegian, hilaren 11n, gaueko 23:00etan hasita *Iratxo Rock Kafean*. Rock talde gazte honek bere bigarren diskoko abestiak eta 'Bada hiri gorri bat' lehenengo diskokoak tartekatu zituen kontzertuan. Elgoibartar ugari hurbildu zen tabernara eibartarren pop rock doinuak zuzenean entzutea eta azkenerako aretoa bete egin zen. Asier Serranoren eta Mikel Gorosabel 'Norton' en taldeak ordu bete pasatxoko kontzertua eskaini ostean, bertara inguratutakoek gustura alde egin zuten.



## Giro alaiaren izen larunbatean Gaztetxeko sagardo festan

Joan den larunbatean, hilaren 11n, sagardo festa izan zen Gaztetxean. Bertara gerturatu zirenek hiru kupel izan zituzten aukeran nahi beste sagardo edateko. Honetaz gain, jatekorik ere ez zen falta izan Gaztetxean. Jan eta edan bitartean giroa alaitzeko 'Garbanzo Negro' talde galiziarren gaita, trikiti eta danbor hotzak izan ziren. Abesti ezagunak bertsiatuz jendea saltoka jarri zuten. Afaldu ostean ere, Madrilgo 'Hiper Kord' taldeko kideen musikaren erritmora dantzan aritu zen Gaztetxean elkartutako jendea. Larunbat arratsaldea eta gaua giro alaiaren eman zuten Gaztetxera joandako elgoibartarrek eta kanpotarrek.



## • Mozanbikerako dirulagunza

Inauterietako larunbatean hainbat elgoibartarrek Mozanbikerako laguntza bidaltzeko dirua batu zuten. Bertan izandako uholdeak direla-eta oso egoera larrian dago jendea, eta asko dira etxerik gabe geratu direnak ere. Hori dela-eta Elgoibartik diruz lagundu nahi izan diete. Guztira 8.525 pta. batu zituzten. Ohar honen bidez laguntza eman zuten guztiak eskertu nahi dituzte.

## • Ur, zabor eta estolderia zergak

Udaletik aditzera eman nahi zaie herritarrei 2000. urteko lehen hiruhilabeteko ur, zabor eta estolderia zergak ordaindu behar direla apirilaren 29a baino lehen. Helbideratu gabe dauzkatenek Udaletxeko Diru Bilketa Bulegoan edo edozein banketxetan egin ahal izango dute ordainketa, agiriak etxetara bidali baitira. Aipatutako epea pasa ondoren, ordaindu gabekoei %20 gehiago kobratuko zaie. Bide batez, udal txetik ordainagiriak helbideratzeko gomendioa luzatu nahi zaie herritarrei, horrela ordainketak errazten direlako.

## • IAtxutxild Hilabetearr izena emateko epea ndiabk dago

Atxutxiarnaika Begirale Taldeak antolatutako, 'Atxutxiki Hilabetearr' parte hartzeko izena emateko epea zabalik dago. Haur Hezkuntzako haurrei zuzenduta dago 'Atxutxiki Hilabetearr'. Izena ematen dutenek larunbatero (martxoaren 25ean hasita) hainbat ekintzatan parte hartzeko aukera izango dute: eskulanak, soinu eta mimika jolasak, karaokea, oiha misteriotsua... Ordu-tegiari dagokionez, goizeko 10:30etik eguerdiko 12:30era izango da. Prezioa, berriz, 3.000 pezetakoa. Izen ematea Elgoibarko Izarran edo 943 74 16 26 telefonora deituz egin daiteke.



## Pilar ikastetxekoak Eibarko 'Alfa' lantegia ezagutzen izan ziren

Joan den otsailaren 22an Pilar ikastetxeko DBH 3ko ikasleak Eibarko 'Alfa' lantegian izan ziren bertako lan prozesua ikusten. B arrian hiru lantegi txiki ikusi zituzten, altzairuzko mikrofusioa, Alfa mikrofusioa eta Alfa Arte, hain zuzen ere. Esan digutenez "benetan ikusgarria" izan zen eta 'Alfa'ko langileei eta arduradunei eskerrak eman nahi dizkiete goiz hartan beraiekin egon zirelako.

# Tecnomeca Eskubaloi taldea Gipuzkoako txapeldun izan da eta Gaur Elgai E.111 taldeak Federazio Trofeoa irabazi du

Bestalde, IIVH taldeko senior mutilak Gipuzkoako txapeldunorde izan dira



Tecnomeca Eskubaloi taldeak (ezkerrean) Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako taldeen aurka jokatu du igoera fasean. Gaur Eskubaloi taldeak (eskuman), berriz, Kopa Txapelketa jokatu du.

Ugia bukatzeko bi partidu falta direnean, 'Tecnomeca Elgoibar' kade-mailako mutilen eskubaloi taldeak Gipuzkoako Txapelketa irabazi du. Jose Antonio Hidalgo entrenatzen duen taldearen hurrengo igoerak, datorren urtean Euskal Liga jokatzeko sailkatzea izango da. Apiriletik aurrera Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako taldeen aurka jokatu dute igoera fasea elgoibartarrek. Igoera fasean 'Tecnomeca' taldeak lortutako emaitzei 'Pneumax' jubenil mailako mutilek lortu-

tako emaitzak batu behar zaizkie, bi taldeen emaitzak hartuko baitira kontutan. 'Tecnomeca' taldeak gain, kadete mailako beste talde bat dauka Elgoibarren, 'Gaur' taldea, hain zuzen. Hauek ere ez dabilta hanka motz eta Federazio trofeoa irabazi berri dute. Orain, Kopa Txapelketa noiz jokatu zain daude.

Azkenik, pasa den astean iragarri genezizuen moduan, 'IMH' taldeko senior mutilek 2. nazional mailan jokatzeko igoera fasea jokatu dute. Hurrengo

fasea jokatzeko sailkatuta bazeuden ere, azken partidua falta zitzaien jokatzeko, Gipuzkoako txapelduna nor izango zen argitzeko partidua, alegia. Zarautzeko 'Arnenabar' taldearen aurka jokatu zuten partidu erabakigarria, ostiralean, hilaren 10ean, Kiroldegian. Partidu osoan aurretik izan ostean, emozioz betetako azken txanpan zarautzarrek partidua berdindu zuten eta beraiek izan dira lehen postuan sailkatu direnak.

## • Bldoturisten irteera martxoaren 19an

Elgoibarko Laun Taldeak antolatuta, datorren domekan, hilaren 19an, izango da 11. zikloturista irteera. Goizeko 10:00etan Txankakua zubitik abiatu, eta honako hau izango da egungo duten itzulia: Soraluze, Bergara, Arrasate, Santa Ageda, Untzila, Gellao, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Soraluze eta Elgoibar. Guztira 64 km. dira. Nahi duen edonork har dezake parte.

## • Familia eta bikoteentzako sauna Olaizaga Kiroldegian

Udal Kirol Patronatuak aditzera eman nahi du, Iarunbatetik aurrera (hilak 18), familia eta bikoteek Olaizaga Kiroldegiko saunak erabili ahal izango dituztela. Saunak erabiltzeko ordutegia, arratsaldeko 16:00etatik 19:30era izango da. Udal Kirol Patronatuaren asmoa, osasunarentzat hain egokia eta mesedegarria den jardura hau bultzatzea da.

## • Emalua onak lortu dituzte Elgoibarko Ibai Kirol Elkarteko ikasieek Eskola Kiroleko 2. jardunaldian

Martxoaren 11n, larunbatean, Debako kiroldegian jokatu zen Eskola Kiroleko 2. jardunaldia alebin eta infantil mailan, Gipuzkoako txapelketako puntuagarria zena, hain zuzen ere. Elgoibartar guztiak sailkatu dira Eskola Kiroleko Gipuzkoako Txapelketarako, bai Deban eta bai Arrasaten (aurreko jardunaldian) lortutako puntuazioen arabera. Beraz, Donostiako finalean izango dira martxoaren 26an. Hona hemen sailkatutakoak: Alebin mutilak: Jon Ander Pascual, Josu Tellabide, Aitor Gonzalez, Ekhi Unanue eta Unai Fernandez. Alebin nesketan: Ana Estevez. Infantil neskek: Zuriñe Polo, Amaia Zabaleta eta Maria Idiakez. Ibai Taldeko judoek txapelketa hau ondo prestatu nahi dutenez, hilaren 18an, Calahorrara joango dira bertako txapelketan parte hartzera.

# Ekaitz Isas1 elgoibartarra Snow-board-glo Ballentaines Zirkuituko 3. proban 2. saiikalui

'Boarder cross' modalitatean parte hartu zuen  
Andorrako Pas de la Casa eski estazioan

**E**kaitz Isasi elgoi-  
bartarrak gazteen  
artearen arrakasta  
handia duen kirola egiten  
du, snow-board-a, alegia.  
Aurten hasi da txapelkete-  
tan parte hartzen, eta mai-  
la bikaina duela erakutsi  
du orain arte. Pasa den  
igandean, hilaren 12an,  
esaterako, Ballentaines  
zirkuituko 3. proban hartu  
zuen parte Andorrako Pas  
de la Casa eski estazioan.  
'Boarder cross' izeneko  
modalitatean (oztopoz eta  
jauziz betetako zirkuitoan  
egiten den lasterketa)  
lehiatu zen eta bigarren  
postuan amaitu zuen. Bal-  
lentaines zirkuitoa estatu-  
ko garrantzitsuenetakoa  
dela aipatzea komeni da,  
Espainiako txapeldunak,  
frantziar eta maila  
oso altuko atzerritarrek  
parte hartzen dute  
bertan, askok gainera  
babesle eta guzti.  
Ekaitzek azaldu dizkigu  
lasterketaren gora  
beherak, "larunbatian  
danok banan-banan  
bajau gendun zirkuitua,  
eta denborarik one-



Finalean eskiatzaile  
argentinaren batek azta-ozta  
irabazi zian Ekaitz




nak ein genitxun 32  
sailkatu ginan laster-  
ketetan parte hartze-  
ko. 4 lagunetako 8  
taldetan banatu gin-  
tuzten eta lasterketa  
bakoitzeko irabazlia  
aurrerako geratzen  
zan. Finalera ailega-  
tzeko suertia euki na-  
ban eta bertan, justu -  
justu izan ba-  
zan ere, Ar-  
gentino batek  
irabazi zaban.  
Dana dala,  
oso pozik na-  
o, nibel haundi-  
xa zauan-eta".

Ballantai-  
nes zirkuitoko  
lehenengo proban 9.  
egin zuen Ekaitzek

eta orain lortu duen bigarren postuari esker,  
hamar lehenetan dago sailkapen orokorre-  
an. Hurrengo lasterketa Cerlerren jokatu-  
ko da eta zirkuitoko azkena izango da. Beraz,  
Ekaitzek bere maila erakutsi eta sailkape-  
nean gora egiteko aukera izango du.

## III. Pilota Eguna eta Sallobenteko Pilota Txapelketake Vinalak asteburuan izango dira

Artazo pilotari ze-  
naren omenezko eskuz  
binakako finalak Sa-  
llobenteko frontoian  
jokatuko dira bihar, hi-  
lak 18, Sallobente El-  
kartek antolatuta.  
11:00ak inguruan, bi-  
garren mailako bikote-  
en arteko finala hasiko  
da. Aurten familia arte-



ko kontua izango da bigarren mailako fina-  
la, Armaxio aita-seekek (Julianek eta Xa-  
bierrek) Loiola aita-seekek (Angel eta Ene-  
ko) osatutako bikotearen aurka neurtuko  
baitutuzte indarrak. Lehia berezia ikusteko  
aukera izango da, beraz. Bigarren partiduan  
lehen mailako pilotariak arituko dira. Parti-

du honetan Txillarrek  
eta Agirrebeñak Urtu-  
biaren eta Alzibarren  
aurka jokatuko dute.  
Partiduen ostean, bil-  
dots jana izango da  
Sallobente Elkarte-  
an.

Bestalde, larunba-  
terako, hilaren 18ra-  
ko, III. Pilota Eguna  
antolatu du Elgoibar-  
ko Ikastolak 'Tiriro' tabernaren laguntzaz.  
Arratsaldeko 16:00etan hasiko da Ikastota-  
ko umeentzako ekitaldi hau. 64 neska-muti-  
lek denera 16 partidu jokatuko dituzte. Er-  
diak nesken arteko partiduak dira eta beste  
erdiak mutilen artekoak. Eskuz binaka joka-  
tuko dira, 12 tantura.

### E' MAITZA

#### Futbola

Santurtzi 6- Haundi 4 (3. maila)  
Pedrusko 1- Zaraurz 1 (1. erreg.)  
Gazteak 0 - Elgoibar 0 (1. erreg.)  
Urola 2 - Elgoibar 2 (Neskak)  
Anaitasuna 1- Elgoibar 0 (Oho. jub.)

#### Areto Futbola

Zur Ta Lur 1- Inter 0 (Autonarn.)  
Zur Ta Lur 3- Idiazabal 2 (1. maita)

#### Eskubaloia

Pagoaga Elg.15 -Afotta-Mandi 9 (Kad. nes.)  
Almen 17 - Gaur Elg. 23 (Kad. mut.)  
Eggia Joggers 16 -Tenomeca Elg. 25 (Kad. mut.)  
Unceta Elg. 15 Aloña-Mendi 17 (Jub. nes.)  
Arrasate 15 - PneumaxElg.19 (Jub. mut.)  
IMH Elg 27 - Amenabar Zarautz 27 (Senior mut)

#### Eskupilota

Debarroko Txapelketa  
Balzola/Lazarobaster 16 (Lagunak)  
Uberaiferlaver 22 (Oskarbi)

#### Idarraga Kafeak 3. saria

HAUNDIko jokalarierregularrena 99/00  
JOKALARIA ..... PUNTUAK

1- Aranberri .....	33
2- Zulaika .....	28
3- Loren .....	27
4- Castro .....	27
5- Castillo .....	26
5- Polo .....	21
7- Alberdi .....	20
8- Baca.1 .....	20
9- tbarluzea .....	19
10- Bravo .....	16
11- Diaz .....	15
12- Leonardo .....	12
13- Miket .....	12
14- Ruiz .....	8
15- Guarrotxena .....	6
16- Caro .....	7
17- Manolo Ramos .....	4
18- Alkorta .....	4
19-Txasio .....	4
20-Edu .....	4
21-Fernandez .....	2

### AGENDA

#### Futbola, Mintxetan

Larunbata, 18  
15:30 Elgoibar- Urola (Neskak)  
17:15 Elgoibar- Usurbil (1. erreg.)  
Igandea, 19  
11:00 Elgoibar - Antiguoko (Oho. inl.)  
12:30 Elgoibar - Soraluze (2. kad.)

#### Eskubaloia, Kiroldegian

larunbata, 18  
16:00 Pneumax - Almen (Jub. mut.)  
17:30 Tecnomeca Elg. - FFE (Kad. mut.)  
19:00 IMS - A, Vitoria (Senior nes.)

# Eti 21&

## Rockaren eta klasikoaren fusioa

**E**z da batere arrunta rock talde bat eta orkestra bat elkarrekin jotzen ikustea. "Metallica" taldekoak izan dira nahasketa berezi hori egiten azkenak. Kaliforniarrek taldearen abesti ezagunenak orkestrarekin zuzenean jotzeko moldatu dituzte. Bertan, ordea, ez da rockaren eta musika klasikoaren arteko fusiorik gertatu. Hori da, hain zuzen ere, DEFP PURPLE taldeak egin zuena 1970. urtean. "Concerto For Group And Orchestra", The Royal Philannonic Orkestrarekin batera grabatu zuten ingelesek.

Diskoa, taldeko teklistak, Jon Lordek konposatutako obran oinarritzen da eta hiru mugimendu ditu. Kontzertu historikoa "Moderato-Allegro" batez hasten da; bigarrena "Andante" bat dugu, Ian Gillan abeslariaren ahotsa entzun daitekeen multimendu bakarra; eta hirugarrena, berriz, "Vivace-Presto" bat, Ian Paicen bateria solo eta guzti.

Oso ezberdinak izan arren, bi estiloen izpirituak maisuki batu zituen DEEP PURPLEek Ian honetan. Bai rockaren eta baita musika klasikoaren jarraitzaileak ere zur eta lur utziko ditu disko honek.

**Ian Gurrutzaga Arakistain**



## "Euskara batua eta euskalkiak etsaiak barik, osagarriak dia"

*Koldo Zuazo filologo eibartarrak "Deba ibarreko euskaria" liburua kaleratu du. Bertan, bi urtetako lanajaso, gure eskualdeko euskararen azterketa egin du. Pasa den asteazkenean, martxoaren 15ean, Kultur Etxean izan zen hitzaldia ematen eta guk berarekin hizketalditxo bat eduki genuen. Euskara batuaren eta euskalkien arteko osagarritasunaz hitz egin zigun.*

### 11 Zergatik aukeratu duzu Deba bailara zure azterketa egiteko?


Hau gune interesantia da hizkuntza aldetik. Administrazioz Gipuzkoa da, baina euskaria Bizkaikuan antzerakua da. Urriak jua eta urriak etorri Gipuzkuan eragina gero eta haundixaua izan da. Hemen, Elgoibarren bertan, zahañek eitzen daberen berbetia eta gaztiekin eitzen dabena diferentia dala ikusten da eta gaztiekin gehixao jotzen dabe Gipuzkoa aldera. Gaur egun, hori gutxitu ein da euskara batuaren eraginarengatik. Baina, behinik behin oin dala 200 urtetik hona, "euskera giputxa" izan da hemen prestigiva euki dabana eta horrek hemengo berbetan eragina izan dau.

### 11 Eskualdea hiru zonaldeetan bereiztuta ageri da liburuan.

Deba ibar honetan hiru euskera klase daude: Debagoienekua, Oñatin, Aramaixon eta Leintz aldiaren eitzen dana. Beste bat, Bergaran, Elgetan, Antzuolan, Ermuan, Eibarren eta Plaentxin eitzen dana da. Debalioienekua eta Debaerdikua deitxu ditxudanak, nahiko mendebalekuak dia, Bizkaixan eitzen dan euskaria dake. Gero, hiru herri gelditzen dia, Elgoibar, Mendaro eta Mutriku, eta ezin da esan hauek Giputzak edo Bizkaikuak dianik, tartekuak dia. Hori normala da, bitxartian daudelako eta hori hizkuntzan be agertu eitzen da.

### 11 Zer jaso duzu liburuan?

Hiru atal nagusi daoz. Lehenengo atala deskripziva da, zein ezaugarri daozen hemen eta ezaugani honetako bakoitzak zein eremu daukan azaltzen dau. Ezaugani batzuk Elgoibarren eta Mendaron betetzen dala ikusten da, eta aldiz Mutriku ez. Holako kasuak erakutsi ditxut. Bigarren partia dialektologixia da. Hemengo euskariak Bizkaikuakin zein hartu-emon ditxuan, edo Arabakuakin zein dakan... eta hori zeatxik izan leiken aztertu dot. Hirugarren partiak liburua idazteko beste arrazoi bati erantzuten dio. Jendiak preguntau eitzen dau batua



*Bi urtetako lanaren fruitua da Koldo Zuazoren liburu hau.*

ala bertoko berbetia erabili bihar dan. Orduan, azkenengo zatixan, konponbidia ez dot ematen, baina gauzak arlo honetan oin arte baino hobeto eitxeko proposamen batzuk ein ditxut.

### 11 Zure iritziz euskara batuak eta euskalkiek osagarriak izan behar dute, ezta?

Hemengo euskaria ez dot aztertu interes zientifiko hutsagatik, bultzatzeko baizik. Azken aldixan gauzak ez dala ondo ein pentsatzen dot. Badao jendian artian iritzi bat sartuta gure euskaria txarra dala, eta batua dala ona uste dou. Batua premiazkua da, baina ez gara konturatzen batua gauza batzuetarako eta Elgoibarko berbetia beste gauza batzuetarako dala. Euskara batua ez zan egin elgoibartarrak eta eibartarrak elkarrekin aritzeko, guk ez dou sekula arazorik euki. Jendia piska bat galduta dabilela ikusten dot. Gaur egun, dakagun burrukia hori da. Urte askuan euskara batua eta euskalkixa elkarren etsai balira bezela erakutsi dia eta ez da egixa. Euskara batua eta euskalkixak etsaiak barik, osagarriak dia. Noiz erabili bata eta noiz bestia jakin bihar dou eta oin arte txarto egin ditxugun zenbait gauza aldatu ein bihar dia.

Martxoaren 12ko hauteskundeak

# Zein da hauteskundeetako emaitzei buruz daukazun iritzia?



**JON ANDONEGI**  
21 urte, ikaslea

Nire ustez hobeto izango litzateke euskal alderdiren batek irabaziko balu, horrela burujabetasuna lortuko genuke eta independenteak izango ginateke.



**VICTORIANA PRIETO**  
67 urte, etxekoandrea

PSOEK irabaztea nahiago nuen, baina PP iritsi da agintera eta horrekin konformatu behar. Jubilatua naiz eta ea orain esandako guztiak bete eta pentsioa igotzen diguten.



**MARINA COLINA**  
58 urte, administratiboa

Abstentzioa egon denez, emaitzak normalak iruditu zaizkit eta ez naiz harritu. Ikusitakoak ikusita, orain artean bezala jarraituko durrmla iruditzen zait.



**VICTORINO BAZTERRA**  
63 urte, jubilatua

Ez zitzaidan inporta batzuek edo besteek irabaztea. Hala ere, egon diren emaitzekin ez dut uste ondorioak onak izango direnik.



**SILVIA GABIOLA**  
32 urte, gestorea

Ez zaizkit oso ernaitza onak. Gainera, PPK gehien-go absolutua lortu duenez, ez dut uste beste alderdiekin negoziatuko duenik eta horrek ez ditu ondorio onak ekarriko.



**1111AKI SAE**  
43 urte, torneroa

Emaitzek bastante harritsu naute, ez nualako hainbeste-ko diferentziarik espero. PPK ez du beste partiduekin konpromisorik hartu bitur eta bere esku dao dana.

bestelo(o) zinea.2  
MARTXOA APIR LA

**ARANBURU**  
BITXIDEN DA

*Aurreko urteetan bezala, aurtan ere eskaintza berezia aurkituko duzue belarritako eta eiwtunetan, EZ GALDU AUKERA HAU!*

San Frantzisko, 26 • Tel.: 943 74 25 35

**IADUTICIE ULL IDAS-%**

Enpanadak	Enbutidoak
Baserriko ogia	Bolleria

121Bartolome, 6 / B. Ezenarro, 1 n° 943 74 3312

**INTERESEKO**

**T**

**OSASUNA**

Anbulatogla ..... 943 032610  
 Planning-a ..... 943 742950  
 Alkoholiko Anonimoak . 943740385  
 D.Y.A (anbulantzia) . 943 464622  
 Gurutze Gorria . . 943 743864  
 Mendaroko Ospitalea.. 943 032800  
 Odol Emailak . . 943 743936

**GARRAIOAK**

Eusko Trenbideak .. 943 740442  
 PESA (Eibar) . 902 10 12 10  
 Taxi geltokia . 943 740898

**UDALA**

Euskara Zerbitzua... 943 744366  
 Udal Kirol Palonatu... 943 744415  
 Kultura Zerbitzua.. 943 742158  
 Mendaroko Udala... 943 756100  
 Ongizate zerbitzua ... 943741008  
 Udaletxea ..... 943 741050  
 Udaltzaingoa. 943 741394

**BESTELAKOAK**

Elgoibarko Izarra ... 943 741626  
 Kirolegia ..... 943 744415  
 Kontsumo Bulegoa ... 943 743088  
 Liburutegia ..... 943 743525  
 Musika Eskola 943 742145  
 Mintxeta ..... 943 744315  
 Parrokia ..... 943 740842  
 Postetxea ..... 943 741547  
 Gaztetxea ..... 943 743572

**ADINEKOM ETXEAK**

San Lazaro Egoitza.. 943 740296  
 Zaharren Biltokia ... 943 740526

**IKASTETXEAK**

Haur Eskola ... 943 74 21 41  
 HHI (EPA) . 943 74 08 80  
 Herri Eskola ... 943 74 08 79  
 I.M.H. .... 943 74 41 32  
 Herri Institutua  
 Arreiturre .. 943 74 02 67  
 Ezenarro (Meka).. 943 74 80 19  
 Ikastola ..... 943 74 44 41  
 Pilar Ikastetxea.... 943 74 13 31

**KOMUNIKABIDEAK**

BARREN..... 943 74 41 12  
 El Diario Vasco 943 74 40 73  
 El Correo Español. 943 74 10 82  
 Zazpiki irratia 943 74 34 74

**19**  
**igandea**

10:00 ZIKLOTURISTEN IRTEERA  
 Txankakua zubitik  
 Antolatzailea: Elgoibarko Lagun Taldea

12:30 UDAL MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA  
 Herriko Antzokian

16:30 ZINEA  
 "Los teleñecos en el espacio"

19:00 ZINEA GAZTETXEAN  
 "Gabbeth"  
 Antolatzailea: Gazte asanblada

19:30-22:15 ZINEA  
 "Sleepy Hollow"

**17**  
**ostirala**

21:00 `ARIGERA TXOTX'  
 Erromeria, sagardo kupela, pintxoak, jolasak...  
 Kultur Etxeko sotoan  
 Antolatzaileak: ARIGERA (Elgoibarko Izarra K.E., AEK Euskaltegia, Udal Euskaltegia eta Udala)

22:15 ZINEA  
 "Sleepy Hollow"

22:30 DIAPORAMA EMANALDIA  
 "Hiru pauso hiru norabide"  
 Hizlaria: Josu Iztueta  
 Gaztetxean

**18**  
**larunbata**

11:00 SAN LORENTZOKO PILOTA TXAPELKETAko FINALAK  
 San Lorentzoko frontoian  
 Antolatzailea: Sallobente Elkartea.

16:00 PILOTA EGUNA  
 Ikastolako frontoian  
 Antolatzailea: Elgoibarko Ikastola

19:30-22:15 ZINEA  
 "Sleepy Hollow"

**2**  
**asteleena**

22:15 ZINEA  
 "Sleepy Hollow"

**21**  
**asteartea**

19:00 HITZALDIA  
 Gaia: Nola gainditu estresa familiako bizitzan  
 Hizlaria: Jose Romo, psikologo eta sofrologoa  
 Antolatzailea: Herri Eskolako Gumsoen Elkartea

**22**  
**asteazkena**

19:30 HITZALDIA  
 Gaia: "Bizitzen jakitea"  
 Hizlaria: Yolanda Armenta, dietista, Japoniar Medikuntzan espezializatua eta shiatsu masterra duena  
 Kultur Etxean

**23**  
**osteguna**

15:00 IKUSENTZUNEZKOA  
 "Hiru pauso, hiru norabide" (Euskaraz)  
 Hizlaria: Josu Iztueta  
 Kultur Etxean

21:30 ZINEA  
 "El caso Winslow"

**24**  
**ostirala**

18:30 ODOL ATERALDIA  
 P.M. Urruzuno, 8 behea

19:00 MARGO ERAKUSKETAren INAUGURAZIOA  
 J. Agustin Larrañaga  
 Kultur Etxean  
 Apirilaren 9ra arte

22:15 ZINEA  
 "Las cenizas de Angela"

. . . . . ■ IN II . . . . . R IN . . . . .

11  
NE  
A



Zuzendaria: Tim Burton.  
 Antzezleak: Johnny Depp, Cristina Ricci, Miranda Richardson.

**"Sleepy Hollow"**

Estatu Batuetako Sezesio-gerra inguruko urteetan Sleepy Hollow herrian, bururik gabeko zaldun baten kondairak herritar guztiak beldurtuta eta kezkatuta dauzka. Kondairaren egiazkotasuna frogatzeko asmoz, New York-eko polizia berezi bat (Johnny Deep) bidaliko dute herrira, ikerketa metodo oso aurreratuak erabiltzen dituelako da berezia. Bere ikerketetan aurrera egin ahal, errealitatearen eta fikzioaren arteko muga oso fina dela konturatuko da.

II • • • • • • 111 • • • • • IR • • • • •



• **Udal Muska  
Bandaren kontzertua,  
hilaren 19an**

Igandean, hilaren 19an, Udal Musika Bandak kontzertua eskainiko du Herriko Antzokian. Jose Antonio Osorozen zuzendaritzapean, eguerdiko 12:30ean hasiko da kontzertua. Honako pieza hauek joko dituzte: 1as Provincias (V.A. Terel), Semiuramis (Rossini), The Pink Panters (H. Mancini), Nessun Donna (Puccini) eta El Bateo (Chueca).

• **Ongarri  
Kolektimik  
antolatutako  
oinarri dm argazki  
ikastaroa**

Ongarri Argazki kolektiboak oinarritzko argazki ikastaroa antolatu du. Martxoaren 27tik apirilaren 4ra izango da. Eskolak egunero ernango dira astelehenetik ostiralera, arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara. Guztira 20 orduko iraupena edukiko du ikastaroak. Gehenez 6 pertsonentzako lekua dagoenez ahalik azkarren izen-ematea komeni da. Ilkastaroan izen-emateak 5.000 pezeta balio ditu bazkide ez direnentzat eta bazkideentzat, berri, 4.000 pezeta. Izena eman nahi duenak 943 74 23 01 telefonora deituz egin dezake.

• **Batera Plataforma Mendaron sorlezko bilera martxoaren 22an**

Mendaroko Plataforma Aktiboak, Mendaron ere Batera Plataforma (Euskal Presoen eskubideen aldeko plataforma) sortzeko deia luzatu nahi die herritar guztiei, bereziki Mendaroko alderdi politikoei eta elkartei. Asmo horrekin, datorren martxoaren 22an, asteazkenean, gai honi buruzko bilera izango da Mendaroko Kultur Etxean gaueko 21:30ean.

• **Jose Agustin Larrañagaren margo erakusketa martxoaren 24tik aurrera**

Jose Agustin Larrallaga margolari Markinarraren margo erakusketa martxoaren 24an inauguratuko da arratsaldeko 19:00etan Kultur Etxean. Eibarren bizi den margolaria Donostian hasi zen margotzen, Justo Barrenetxearekin batera, D. Revevskiren ondoan. Revevski, margolari errusiarra, udaldietan nobleziarekin batera bidaiatzen zuen pertsona ospetsua izan zen. Jose Agustinek irudiak eta paisaiak margotzen ditu batez ere. 1987an egin zuen bakarkako lehen erakusketa Donostian. Orduetik ona ez dio ez margotzeari ezta erakusketak antolatzeari utzi eta honako hau, bokaziozko margolari honen lanak ikusteko aukera paregabea da. Erakusketa apirilaren 9ra arte izango da ikusgai.



• **Zuhaitz Eguna eta txotxongilo emanaldia Mendaron**

Mendaroko 'In Leike' Elkarteko aisialdi taldeak martxoaren 19rako (igandea) Zuhaitz Eguna antolatu du. 'In Leike'tik adierazi digutenez, parte hartu nahi duenak goizeko 10:00etan Herriko Enparantzan agertu beharko du. Ondoren, Mendaro inguruan hainbat zuhaitz landatuko dituzte. Bestalde, arratsaldeko 19:00etan txotxongilo emanaldia izango da Kultur Etxean Behi Bis taldearen eskutik.

**T X A N D A K**

**FARMAZIAK**

- Eguez      Gaez  
 18 Etxeberria Etxeberria (Errosario kalean)  
 19 Etxeberria Etxeberria (Errosario kalean)  
 20 Escala Escala  
 21 Bidasolo Bidasoto  
 22 Etxeberria Etxeberria (Santa Ana kalean)  
 23 Fernandez Fernandez  
 24 Yudego Yudego

**ESCALA:** Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 943 75 16 38  
**J. IGNACIO FERNANOEZ** Herriko enparaniza 4, Garagarza. Tel: 943 75 61 42  
**ZABALETA:** Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 943 75 13 84

**OKINDEGIA**  
 18 igandea Idarraga

■ ■ ■ ■ ■ li al • • 111 • El

• IZ Z EN ZIEN ■ 1 • • 111 • •

**ONGARRI**  
 zine kluba



Zuzendaria: David Mamet.  
 Antzezleak: Nigel Hawthorne, Jeremy Northam, Rebecca Pidgeon.

**"El caso Winslow"**

Ronnie Winslow izen oneko sendi bate-tako gazteena da. 5 chelin balio dituen posta igorpena lapurtu duela-eta, eskolatik bota dute, baina bere aitaren aurrean zin egin du bera ez dela erruduna izan. Ronniaren aitak, Morgan abokatua kontratatuko du sendiaren izen ona garbitzeko asmoz. Azken honek, epaitegian demanda bat jarriko du ikastetxea salatuz. Kasuak Ingalaterra osoan izurzardzko ikusmina sortuko du.

■ ■ ■ ■ ■ • • IE • • • • II III • El ■ 111 ■ IZ Z ■ IE • al • IE •

## Oharra

Merkatu txikirako oharrak asteazken eguerdia baino lehenago ekarri behar direla gogorarazten dizuegu.

## Lana

### • ESKAINTZA •

- Esperientziadun pintoreak behar dira. a 606 43 11 20/943 74 15 52/
- Oraiko tabernan kamarcroa eta sukalderrako laguntzadea behar dira. Ez da beharrezkoa esperientzia izatea. 943 74 42 65
- Pertsona arduratsua behar da 2 haur zaintzeko. Sukaldean aritzen jakitett komeni tla. tr 943 74 35 62 (9:(X)-13:00) / 17:00-20:00 Itziar}
- Persona euskalduna behar da goizez 2 urne zaintzeko. 2. 943 74 05 14/ 943 74 15 16/ 626 23 75 70

### • ESKAERA •

- ◆ Neska eskaintzen da goizetan lan egiteko. a 943 74 29 73
- Esperientziadun neska eskaintzen da edadetuak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. ir 609 41 73 52 (Rosa)
- Esperientziadun neska eskaintzen da garbiketa lanak egiteko tabernak, lokalak, etxeak... ir 943 17 29 20 (Maite)
- Neska eskaintzen da goizetan lan egiteko. a 943 74 29 73
- Ertr.aintzan diplomatutako neska euskalduna eskaintzen da pertsona gaixoak edo edadetuak zaintzeko, etxean nahiz ospitalean. Egunez edo gauez... tr 943 74 27 78 (Itziar)

## Bestelakoak

- Bitlaitrako poltsa galdu dit Merkatu Plazatik Plaza Txikira bitanean. Barruan arropa dago. t 943 74 03 65
- Zilarrezko erlojua galdu dit, anhuategi oncloan. Topatu duenak eraman dezala mesedez tatal-tzaingora.
- Gaztetxerako aulkiak eta mahaiak behar dira. Soberan izan eta ematea nalti baldin baduzue deitu. lasotzera pasako gara. tr 943 74 35 72

## Etxebizitzak

- Etxea alokatzen dut. a 943 74 07 44 (13:00-14:00. Mari)
- Gela bat daukat alokatzeko. 17 943 74 18 81
- Konpartitzeko pisu bat edo logela hartuko nuke alokairuan. tr 667 91 22 54
- Etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. 3 gela edo 2 logela eta egongela. Altzaririk gabe. tr 696 47 16 95
- ◆ Ikasle pisua osatzeko jendea behar da. 2 logela libre. n. 943 62 53 77 (Fernando)
- Etxea alokatzen dut Erretxindin. [Alri.ariekin](mailto:Alri.ariekin). tr 943 74 33 06
- Apanamentua salgai Dehan, Itsasbegi kalean. Garajea clauka. tr 943 19 23 48
- Pisua hanuko nuke alokaintan. er 943 74 04 86
- Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. Ahal bada altzariekin. lor 626 80 80 93
- Etxea alokatzen dut P. Muguniza Etrabidean. 3 logela. a 943 74 27 79
- Etxea salgai Urasandin. 3 logela, 2 komun, egongela, sukalde, balkoia eta ganbara. tr 943 74 15 42
- Etxea salgai Muguruzakaleko 26. zenbakian. a 943 85 08 92

## Salerosketak

- Ordenagailuarentzat mahaia salgai. Erabili gabe. s 943 74 32 98
- Ohea egiten den 90ein zabaleko sofa salgai. Egoera onean. Berri-be-nia. z 943 74 21 68

## Garajeak

- \*Garajea alokatuko nuke Ikastola ondoan. a 943 74 28 24
- Garajea salgai Pista Beltzean. it 943 74 00 39

## Agurrak

- Zorionak Estibalitz Bilbatuari, martxoaren 8an 7 urte hete zituelako.
- Zorionak Hasier Goikoetxeari, martxoaren 14an urteak bete zituelako. Asmatu zein garen.
- Zorionak Aitor Garciari, astelehenean 11 urte bete zituelako. Dantzakoen partez.
- Zorionak Sara De Castrori, martxoaren 6an 5 urte hete zituelako. Familiaren eta bereziki here ahizpa Mireiaren partez.
- Zorionak Lolurrazipeju, aitatxo izan zarelako, Loliaren partez.



• Zorionak Nekane Agirre-gomezkortari, hilaren 14an urte hete egin zuelako. Familiaren eta bereziki Asierreren partez.

• Zorionak Carlos Gomezi, hilaren 15ean urteak hete zituelako. Arrebaren eta gurasoen partez.



• Zorionak Alazne Uranga Goroslizari. Bere lehenengo urtebetetzean, Familiaren partez.

• Zorionak Daneli, hilaren 21ean urteak beteko dituelako. Familiaren partez.



• Zorionak Alaitz Egañari, martxoaren 20an 2 urte beteko dituelako. ren eta bereziki Sara, Izaskun eta Arkaitz lehengusuen partez.

• Zorionak Inma Liberali, hilaren 16an urteak bete zituelako. Familiaren partez.



• Zorionak eta 9 tirakada handi gure etxeko kirolarleri! Auniera, laster Gurru beste izango zera eta!

Zorionak Eduardo Santamarta Reyri, hilaren 22an 7 urte beteko dituelako. Familiaren partez.



• Igandean 4 urte Haizea! Zorion bero-beroak eta muxu haundi haundi bat danon partez.





**MENDARO**

PROMOZIO INMOBILIARIOAK

GURE IBILBIDE

PROSESIONALAK

GURE ERAIKUNTZEN

KALITATEA

GARANTIZATZEN DU

# MENDAR, 9, 4<sup>a</sup>-4<sup>a</sup>/

INFORMAZIOA eta SALMENTA obran bertan • Tel.: 943 75 51 68 • 94 491 23 19



• Makineriatintentzako txirbil atengailuak.

• Talrbil tratamendurake Inataraileak.

"I" Likidooon flitlazioa (olle eta tataddrial

• Xafila-ebakinen ateratzea. Estanpazioa.

**COMETEL**®  
SYSTEM

-COMETEL. S.A.  
Aparticio169  
29870 EChial: Aditllpuzkoal Eaparm  
Talf: 214 - 94 16 62 - For 943 74 09 50  
l; coffit410Come net  
t

**COMETEL**®  
SYSTEM

COMETEL. S.A.  
Ibaltaria 13 Apartado 169  
20670 ELGOIBAR (Gipuzkoa) España  
Telf: 34 - 943 74 16 62 - Fax: 34 - 943 74 09 50  
email: cometel@cometel.net  
http: www.cometel.net

# HOBETU ZURE ETXEA, BARRUTIK... ETA KANPOTIK!



**OTIS**



IKUS<sup>t</sup>



Debako Udala



Etharks Udala



Elgaharks Udala



Erruaks Udala



**DEBEGESA**

GURE ERAIKINEN  
ERREHABILITZAIORAKO  
KANPAINA

**NaturGas**



**Euskal 1**



Mallabiko Udala



Mandarniko Udala



Mutilako Udala



Sorluze Udala

11/

Pebegesak konponketarako zerbitzua eskaintzen dizu. Zerbitzu horrek egin behar duzun lanari buruzko asesorarnendua eta informazioa emango dizu. Zenbaki honetara deituz, Eibarren ditugun *bulegoetara edo* Deba beheko Udaletan jaso dezakezu informazioa.

## Iriforma zaitez!

Tfnoa. 943 E32 01 713



Chwbc

[www.debegesa.com](http://www.debegesa.com)

Egin beharreko konponketeri buruzko informazioa emateaz gain, eta Eusko Jaurfaritza, Udalek eta Enpresek ematen dituzten dbi-laguntzak jasotzen lagunduko dizugu eta arlo teknikoan eta administratiboan lagunduko dizugu.